



VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO ERRITARREN DEFENDATZAILEAREN ARAUDIA

ZIOEN AZALPENA

I.KAPITULUA	IZAERA
II.KAPITULUA	HAUTAKETA
III.KAPITULUA	KARGUTIK KENTZEA ETA ORDEZKATZEA
IV.KAPITULUA	ESKUBIDEAK
V.KAPITULUA	BATERAEZINTASUNAK
VI.KAPITULUA	PROZEDURA
	Lehen atala: Eskumenak
	Bigarren atala: Tramitazioa
VII.KAPITULUA	HARREMANAK UDALBATZARRAREKIN
VIII.KAPITULUA	LANKIDETZA ETA KOORDINAZIO ARAUBIDEA
IX.KAPITULUA	JENDE ETA MATERIAL BALIABIDEAK

ZIOEN AZALPENA

I

1998ko urriaren 17an, Nazio Batuen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrena ospatzen zela eta, Vitoria-Gasteizko hiriak, Europako beste berrogei hirirekin batera, Bartzelonako Konpromisoa izenekoa sinatu zuen. Konpromisoaren sinatzaileek bokazio unibertsala izango duen Hirian Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutuna burutzeko elkarlanean jardutea erabaki zuten. Horretarako sortutako batzordeak idazketa lanak amaitu ondoren, 2000ko maiatzaren 18an Gutun horren behin betiko testuaren jende aurreko sinadura ofiziala egin zen Saint-Denis hirian. Hirian Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutuna, hirietako biztanleek dituzten askatasun publikoak eta hurbiltasuneko giza eskubideak garatzen dituen testu artikulatua da, hiritarraren eta tokiko administrazioaren arteko harremanaren eremuan. Vitoria-Gasteizko udalak bere ordenamenduan sartu ditu gutun horretan aipatzen diren printzipioak eta arauak, eta baita bertan aurreikusten diren bermerako mekanismoak ere. Ondorioz, Gutunaren XXVII. artikuluan aipatzen diren prebentziorako mekanismoak eta, zehatzago esanez, udaleko Ombudsman-aren irudia garatu behar da.

II

Gaur egun ezagutzen dugun Ombudsman Erakundeak bere lehen pausoak Europa iparraldeko herrialdeetan eman zituen, XIX. mendearen hasieran, eta, ondoren, ordenamendu juridiko guztietara hedatu zen. Gure ordenamenduan, 1978ko Konstituzioa onartu zenean jarri zen indarrean. Konstituzioaren 54. artikulua, Herri Defendatzailearen esku uzten du I. izenburuan aipatzen diren eskubideen defentsa, Gorte Nagusietako goi mailako komisionatu gisa. Herri Defendatzailearen irudia, martxoaren 5eko 2/1992 Lege Organikoak aldarazi zuen apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoak sortu zuen, eta denbora gutxira erakundea Autonomia Erkidegoetan ere sortu zen. Horrela, Euskadin, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 15. artikulua agintzen zuena betetz, Arartekoaren Erakundea sortu zuen, Konstituzioaren I. tituluan biltzen diren eskubideen defentsarako Eusko Legebiltzarreko goi mailako komisionatu gisa, Autonomia Estatutuko 9. artikuluan jasotzen diren ordena demokratikoaren printzipioak betetzen direla zaintzeko. Arartekoaren funtzio nagusia hiritarrak babestea da, agintarien gehiegikerien eta Euskal Administrazio Publikoaren arduragabekeriaren aurrean. Arartekoaren jarduketara esparruak Toki Administrazioa eta baita haren esku dauden erakunde autonomiadunak, sozietate publikoak eta gainerako erakundeak biltzen ditu.

III

Arartekoak 1999. urtean eman zuen Txostenaren III. Eranskinean, Legebiltzarretako komisionatuek, sektoreen eta tokien arabera defendatzaileen sorreraren inguruan egin zituzten gogoetak azaltzen dira. Gogoeta horien ondorioa honako hau da: "Esparru guztietan herritarren eskubideen defentsarako sor daitezkeen irudi eta tresna guztien sorrera modu positiboan baloratu behar da, gizarte mailako aurrerapenaren eta kultura demokratikoaren finkapenaren adierazgarri baitira".

IV

Vitoria-Gasteizen Prokuradore Sindiko Nagusia antzinatek errotutako irudia izan da. XV. mendean du jatorria, petxeroen herri eskubideak babestu eta zaintzen baitzituen. Zeregin ugari izan ditu historian zehar; nabarmentzekoa da bitartekari lanak egiten zituela hiriaren eta kabildoaren artean, eta, batez ere, hirian argitzeke zeuden auzi eta epaiketa guztietan defendatzaile jarduten zuen, auzi zibilak nahiz kriminalak baziren ere. Prokuradore Sindikoa, bere bilakaera historikoan, udaletxeko lau lanbide nagusietan parte izatera iritsi zen inoiz, eta karguaren izaerak, bere zeregin ugariekin, balio eta aginte handiko lanbide bihurtu zuen. Aginte Publikoen bilakaerak berarekin ekarri du herritarrek gero eta mendekotasun harreman handiagoak izatea administrazioarekin. Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa administratuen eskubideak bermatzeko sistema osatzera dator.

V

Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren erakundea sortuz orobat ugaritzen dira Vitoria-Gasteizko Udalak herritarren partehartzerako dituen baliabideak, eta, horrenbestez, herritarrek dituzten eskubideak eta askatasunak babesteko sistema osatuko duen organoa gauzatzen da.

I. KAPITULUA. IZAERA

1. art.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa Vitoria-Gasteizko Udaleko Udaltzarraren komisionatu gorena izango da, herritarren eta herritar taldeen eskubideak eta interesak babesteko, eta baita aginte eta botere gehiegikerien aurrean nahiz administrazio lokalaren axolagabekeriaren aurrean babesteko ere.

2. art.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta herritarren arteko lankidetzarako pertsona bakarreko organo gisa osatzen da, eta, bere betebeharren barruan, aurkezten zaizkion kexei buruzko ebazpenak emango ditu.

II. KAPITULUA. HAUTAKETA

3. art.- Herritarren Defendatzaile edo Sindiko izateko bere eskubide zibil eta politiko guztiak indarrean dituen edozein herritar hauta daiteke, Vitoria-Gasteizko biztanle baldin bada.

4. art.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa Udaltzarrak hautatuko du, bost urteko eperako. Behin baino ezin izango da berriro hautatu, lehen aipatu den epe bererako.

5. art.- Hautagaia, gutxienez, zinegotzien bosten batek proposatu beharko dio Bozeramaileen Batzarrari. Eztabaidaren ondoren Alkateak aurkeztuko dio Udaltzarrari.

6. art.- Hautagaia edo hautagaiak proposatu ondoren, hilabete baino gutxiagoko epean Udalbatzarra deituko da, Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa hautatzeko. Hautatua izateko, bozketan, gutxienez Udalbatzarreko kideen botoen hiru bosten jaso beharko ditu.

7. art.- Aipatutako gehiengoa lortzen ez baldin bada, Bozera maileen Batzarra hilabeteko epearen barruan bilduko da, proposamen berriak aurkezteko.

8. art.- 6. artikuluan aipatu den gehiengoa lortu ondoren, hautatu den hautagaia Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Defendatzaile edo Sindiko izendatuko da.

9. art.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa Udalbatzarraren aurrean jabetuko da bere karguaz, eta bere eginbeharra leialtasunez beteko duela zin edo agintza egingo du.

III. KAPITULUA. KARGUTIK KENTZEA ETA ORDEZKATZEA

10. art.- Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak kargua utziko du honako arrazoi hauek baten ondorioz:

- a) Udalbatzarraren aurrean beren beregiko uko formala aurkezten duenean.
- b) Izendapenerako epea amaitzean, Estatutu honetako 4. artikuluan azaltzen den aukeraren kalterik gabe.
- c) Heriotzagatik edo gertaerabidezko ezintasunagatik.
- d) Vitoria-Gasteizko biztanle izateari uzten baldin badio.
- e) Udalbatzarreko hiru bostenek kargutik kentzea erabakitzen dutelako, karguak dituen betebeharretan eta funtzioetan arduragabekeria nabarmena ikusi delako.
- f) Epai irmoaren bitartez, engainuzko delituagatik kondenatua izan baldin bada.
- g) Gertaerabidezko bateraezintasunagatik.
- h) Eskubide zibilen edo politikoen erabateko gozamina galdu baldin badu.

11. art.- Herritarren Defendatzaile edo Sindiko kargua hutsik geratzen denean, beste bat izendatzeko prozedurari emango zaio hasiera, hilabeteko epearen barruan, gehienez ere.

IV. KAPITULUA. ESKUBIDEAK

12. art.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa ez da inongo aginduren menpe egongo, eta ez du inolako agintarik emandako jarraibiderik jaso behar izango.

13. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak bere betebeharrak autonomiaz eta burujabetasunaz egingo ditu, bere irizpidearen arabera.

14. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak aldeen arteko bitartekari jardun ahal izango du, aldeek hala baimentzen badute.

15. art.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa, bere ekimenez edo hala eskatzen zaionean, joan ahal izango da partehartzeko organo osagarrietara eta Vitoria-Gasteiz Udalbatzarrera.

V. KAPITULUA. BATERAEZINTASUNAK

16. art.- Herritarren Defendatzaile edo Sindiko izatea ez da bateragarria honako hauekin:

- a) Herritarrek aukeratutako edozein aginterekin, edozein kargu politikorekin edo propaganda politikoko jarduera orekin.
- b) Vitoria-Gasteizko Udalean, Udaleko Elkarte Anonimoetan, Udaleko Autonomiadun Elkartean, patronatuetan, fundazioetan eta Udal Administrazioa osatzen duten bestelako izakietan zerbitzu aktiboan egotearekin.
- c) Epai eta fiskal karreraren burutzapenarekin.
- d) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresari elkarte batean afiliatua egotearekin.
- e) Elkarte edo fundazio batean zuzendaritza lanak betetzearekin.

VI. KAPITULUA. PROZEDURA

Lehen atala: Eskumenak

17. art.- Herritarren Defendatzaileari edo Sindikoari dagokio erakundearen ordezkari izatea.

18. art.- Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren betebeharra da hiritarrei aholkularitza, bitartekaritza, informazio eta partehartze zerbitzua eskaintzea, Vitoria-Gasteizko Udalarekin, Udaleko Elkarte Anonimoekin, Udaleko Autonomiadun Elkarrekin, patronatuekin, fundazioekin eta Udal Administrazioa osatzen duten bestelako izakiekin dituzten harremanetan.

19. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak honako hau egin ahal izango du:

- a) Hiritar batengan edo hiritar talde batengan eragina duten udal ekintzak edo jarrerak argitzeko ikerketa hastea eta burutzea.
- b) Organo eskudunei, funtzionarioei edo haien gainean daudenei aholkuak bideratzea edo eginbeharrak gogoratzea, legez kanpo dauden edo zuzenak ez diren ekintzak zuzentzen ahalegintzeko edo udal administrazioaren zerbitzuak hobetu ahal izateko.

c) Eskudun den gaietan txostenak ematea, Udalbatzarrak hala eskatzen dionean.

d) Bere esku dituen baliabide guztien bidez, eta Udal Aldizkariaren bitartez batez ere, bere lanaren zaeraren, bere ikerketen eta urteroko txostenaren berri ematea.

20. art.- Herritarren Defendatzaileari edo Sindikoari, bere eginbeharrak aurrera eraman ahal izateko behar dituen ikerketarako eskubideak aitortzen zaizkio. Horrela, ikuskaritzak egin ahal izango ditu udal sailetan edo funtzionario baten edo Udalarentzat lanean ari den edozein langileren agerraldia eskatu ahal izango du, ikertu beharreko gaiari buruzko informazioa eman ahal baldin badu, beti ere hiritarren eta Udal Administrazioaren eskubideak eta interes legitimoak errespetatuz.

21. art.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa, aurkeztu zaizkion kexen gainean epe eta modu egokien barruan ebazpenak ematen saiatuko da.

Bigarren atala. Tramitazioa

22. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak bere jarduketak ofizioz edo alde batek hala eskatuta hasi ahal izango ditu.

23. art.- Herritarren Defendatzailearengana edo Sindikoarengana zuzendu ahal izango dira, kexa aurkezteko interes legitimoa dutela usten duten hiritarrak edo hiritar taldeak, Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzionario edo langile diren pertsonak izan ezik, lan edo zerbitzu harremanen alorrekin erlazionaturiko gaietara dagokienean.

24. art.- Kexak ahoz edo idatziz aurkeztuko dira, eta haiekin batera, dagozkien agiriak. Kasu guztietan, ezinbestekoak izango dira interesatuaren datu pertsonalak eta sinadura.

25. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak jasotako kexa guztien erregistroa edukiko du, eta, horretarako, haiek hartu izana adieraziko du.

26. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak kexak errefusatu ahal izango ditu honako zergati hauek direla eta:

a) Interes legitimorik ikusten ez denean.

b) Interesatua identifikaturik ez dagoenean.

c) Gaitzustearen edo eskubidearen gehiegizko erabilera hautematen denean.

d) Bere eskumeneren esparrutik kanpo geratzen denean.

e) Epaitegietan edo Justizia Auzitegietan dauden gaiak direnean.

f) Interesatuak, kexa bideratzeko jarreraren edo gertakarien berri izan zuenetik urte bete edo gehiago igaro denean.

27. art.- Kexa errefusatzan baldin badu, interesatuari jakinaraziko zaio, zioak azaltzen dituen idazkiaren bitartez.

28. art.- Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzionarioei dagozkien kexak funtzionarioari jakinarazi beharko zaizkio, hark zuzenbidez komenigarri zaiona alega dezan.

29. art.- Kexaren tramitazioa onartu ondoren, Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak interesatuari jakinaraziko dio. Onartu ondoren, kexaren edukia aztertuko du, ebazpenerako dauden aukerak ikusiko ditu eta kontuak emango ditu eta, hala badagokio, idatzizko txostena eta behar den dokumentazioa eskatuko dizkie ukituriko sailletako, Zerbitzuetako, Udaleko Elkarte Anonimoetako, Udaleko Autonomiadun Elkartetako, Patronatuetako, Fundazioetako eta Udal Administrazioa osatzen duten bestelako izakietako arduradun politikoei edo teknikoei. Haiek, ahalik eta lasterren, informazio eskariari erantzun beharko diote.

30. art.- Bere lana burutzen ari dela Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak hautematen baldin badu pertsonaren baten jarduketa diziplinazko urratzea edo delituzko jarrera izan dezakeela, organo eskudunari jakinaraziko dio, dagozkion ondoretarako.

31. art.- Bere lanaren barruan Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak bidezko aholkuak edo iradokizunak emango ditu. Hala ere, ezin izango ditu Administrazioaren ekintzak aldatu edo deuseztatu.

32. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak bere jarduketaren emaitzen berri eman beharko dio kexa aurkeztu duenari, eta baita kexak ukitutako sailei, zerbitzuei edo erakundeei ere.

33. art.- Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren ebazpenen aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu. Horrek ez ditu kaltetuko beste instantzia batzuetan bidezkoak diren beste ekintzak.

34. art.- Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren jarduketa guztiak doakoak izango dira interesatuarentzat, eta ez da abokaturik ezta prokuradorerik beharko.

35. art.- Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren jarduketak behar diren zuhurtziarekin eta diskrezioarekin egin beharko dira, eta ukitutako pertsonen intimitate eskubidea zaindu beharko da, batez ere informazio pribatuaren eta konfidentzialaren zaintzari dagokionean.

VII. KAPITULUA. HARREMANAK UDALBATZARRAREKIN

36. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak, urtero, egindako kudeaketaren berri emango du Udalbatzarraren aurrean. Horretarako txosten bat prestatuko du eta Udalbatzarraren aurrean aurkeztuko du ez ohiko Osoko Bilkura batean.

37. art.- Txosten horretan aurkeztu diren kexen kopuruaren, motaren eta horiek eragin dituzten gertakarien eta baita errefusatutako kexen berri ere emango da.

38. art.- Urteroko txostenean beren beregi adieraziko dira onartutako kexen inguruan egin diren tramiteen eta kudeaketen emaitzak eta burutu diren partehartzeen ondorioz eman diren aholkuak edo iradokizunak.

39. art.- Urteroko txostenean ez da adieraziko kexak aurkeztu dituzten pertsonen datu pertsonalik.

40. art.- Urteroko txostenean Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak, Vitoria-Gasteiz Udalak, Hirian Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutunaren bitartez, bereganatu zituen konpromisoak zein neurritan betetzen diren ebaluatu ahal izango du, eta, udal administrazioak hobeto funtziona dezan bideraturiko proposamenak ere aurkeztu ahal izango ditu.

41. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak Udaltzarraren aurrean ez ohiko txostenak aurkeztu ahal izango ditu, bere iritziz, partehartzea eragin duten ekintzen larritasunak edo garrantziak hala eskatzen duenean.

VIII. KAPITULUA. LANKIDETZA ETA KOORDINAZIO ARAUBIDEA

42. art.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa, erakundeei dagozkien lankidetzak eta leialtasun printzipioen arabera jardungo da.

43. art.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa lankidetzak estuan arituko da Herri Defendatzailearekin eta Arartekoarekin, Erakunde horiekin izan beharreko lankidetzak eta koordinazioa modu egokian garatu eta zehaztu ahal izateko.

44. art.- Udaleko Sailek, Zerbitzuek, Udaleko Elkarte Anonimoek, Udaleko Autonomiadun Elkarrekin, Patronatuek, Fundazioek eta Udal Administrazioa osatzen duten bestelako izakiek, Herritarren Defendatzaileari edo Sindikoari lagundu beharko diote, lehentasun osoz, erraztu egingo diote informazioa eta espedienteak eskuratzeko lana, eta eskatzen dituen txostenak edo argibideak emango dizkiote.

45. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak, jaso duen kexa Vitoria-Gasteizko Udaleko organoen jardueratik kanpo geratzen dela, eta, ondorioz, bere eskumenen barruan ez dagoela uste baldin badu, Herri Defendatzaileari edo Arartekoari jakinarazi beharko dio. Horren berri eman beharko dio kexa aurkeztu duenari.

IX. KAPITULUA. JENDE ETA MATERIAL BALIABIDEAK

46. art.- Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren loturazko Araubide juridikoa, aldiko langileak eta parekoak arautzen dituen uztailaren 6ko Funtzio Publikoaren Legearen 96. artikulua arabera zehaztuko da.

Ordainketari beren beregiko ukoa egitekotan edo ordainketa bateraezina bada, Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren kargua ohorezkoa izango da, baina horrek ez ditu inolaz mugatuko Araudi honetan adierazten diren bateraezintasunak.

47. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak bulegoak ondo lan egiteko beharrezkotzat jotzen dituen langileak eskatu ahal izango dizkio Udalarari.

48. art.- Organo honen funtzionamendurako behar den zuzkidura ekonomikoak, langilearen kapituluari dagokiona salbu, partida berezia osatuko du Vitoria-Gasteizko Udaleko aurrekontuen barruan.